

...eta

KittO!

852 zkio.
2013-VI-14



KZ gunearen etorkizuna zalantzan

R.P.S. Nº 148/10 L.L.G.

Konbinatu
GRADUATUAK +
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Eztingo da beste eskalari batzuetan erabil.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

DOKTOREAK: Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

hartz-zuritzea

*Irazabal klinikan
hartzak zurituko
dizugu saio bakarrean*



Prezio bereziak!!!

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 08.00-22.00 / Larunbatetan: 10.00-14.00

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

San Juan zoriontsuak!!!



**UMEENTZAT 2º MARRAZKI
LEHIAKETA
SAN JUANAK EIBAR**



**PARTE HARTU NAHI BADUZU
EKARRI ZURE MARRAZKIA
INFORMAZIORA**



EKAINAK 20a BAINO LEHEN



TXOKOLATE-JANA eta SARI-BANAKETA
ekainaren 21ean, 17.00etan



ASTEAN ESANAK

"Gaur egun euskal kulturako eztabaidarik bizienak Twitterren daude. Alderdi txarra ere badu, denbora asko kentzen baitu"

(XABIER MENDIGUREN, EDITOREA)

"Artikoan glaziarrak gutxitzen ari direla diote; Antartikoan, baina, gehitzen. Itsaso izoztuen batura eginda, emaitza positiboa da: 350.000 kilometro koadro gehitu da izoztutako itsaso zatia. Berotze globalarena ipuina da"

(ANTON URIARTE, KLIMATOLOGOA)

"Medikuntza, fisika eta kimika modernoen garaipenaren irudia naiz. Heroinazaleen ikurra izatetik, gibela trasplantatuta, inoiz baino indartsuago sentitzen naiz"

(LOU REED, ABESLARIA)

"Ez dago dirudunik heriotzaren korridorean, abokatu onenak ordaintzeko arazorik ez dutelako. Arraza diskriminazioa, dena dela, ez da presoaren azalaren kolorean nabaritzen: biktimaren azalaren koloreak du eragina epaiaren erabakian"

(RAY KRONE, PRESO-OHIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JEA!.- Zezena xaxatzeko interjekzioa. "Jea, jea, Tolosaldera! Harrapatzen bazaitut jo ta bertan hilgo zaitut!".

JEFE.- Nagusia, baina estaziokoa edo poliziakoa denean. "Jatsi eta estaziñoko jefiagana kejavu zan".

eskutitzak

URKIKO JAIETAN ATZEGIKOekin ELKARLANEAN

Aurtengo Urkiko jaietan protagonista bereziak izan ditugu Galdaramiño mendi lasterketan, **Atzegiko** lagunak (Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen elkarte). Mendi-martxan, Eibarko Txolarterekin batera ibilbidearen zati bat osatu zuten aldarte onen; eta baita erakutsi ere gizarteko partaide direla, elkartasuna erakutsiz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Urkiko jaietan "Txiki-krosa" eta "Galdaramiño mendi lasterketa"n lagundu diguten guztiei: Urki-ko Jai Batzordea, Eibarko

Udala (Alkatetza, Udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, C.D. Eibar (mendia eta atletismo sailak), DYA, Bar Ceba, Eskarne jatetxea, Mara-Mara mendiko kirol-denda, Mugi masaia zerbitzua, Euskaltrail, Kirol-probak, SER, Bizkaia eta Arrate Irratia eta ...eta kitto! astekaria. Eta, batez ere, bolondresei, eurek gabe ez baitzen posible izango kirol ekintza horiek antolatzeari. Eskerrak asko ere parte-hartzaileei eta hurrengo urtera arte!

GALDARAMIÑO ML ANTOLAKUNTZA

KALEETAN KANTUZ-EKOEN ESKER ONA

Ekinaren 1eko jai arrakastatsua eta gero, Kaleetan Kantuzek eskerrak eman nahi dizkie ekitaldian parte hartu zuten guztiei. Bost urte daramatzagu betiko kantak abesten eta herriko ekitaldietan parte hartzen eta datozen urteetan ere hala egiten jarraitu nahi dugu.

Horregatik zuen laguntza eskatu nahi dugu, zuen gurasoek eta aitaitxa-amamek abesten zituzten kantak guri ekartzeko eta, horrela, galdu ez daitezela lortzeko. Eskerrak asko!

KALEETAN KANTUZ BATZORDEA

HERRIA DUGU ARNAS

Horrela dio **Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak** (EIPK), 500 bat lagunek osatua, nahiz eta, Euskal Herrian, Iparraldean 100 inguru bakarrik bizi diren. Urte-etan luzatu den gatazka politikoa ondoz, bere herrietatik hainbat arrazoiengatik ihes egin behar izan zutenak.

Azken hamarkadetan denetatik ezagutu dute: gerra zikina (BVE, GAL...), estradizioak, deportazioa, konfinamenduak, euroagindua... eta, gaur egun, kolektiboan errealitate oso desberdinak dituzte: babesa behar dutenak, eri direnak, eta oso urrun daudenak; batzuk, gainera, linbo juridiko batean daudenak. Baina gauza onak ere ezagutu dituzte, ordea; adibi-

dez "Iheslari Bat, Etxe Bat" kanpainan jaso zuten elkartasun uholdea.

Munduan zehar barreiatuak dagoen kolektibo horrek konpromiso irmoa erakusten du Euskal Herrian hasitako aro berriarekin eta gatazkaren konponbidean parte izan nahi dute. Eta, gainontzeko herritarrekin, Euskal Herrian libre bizi. **Herria dute arnas** eta, sorterrria urrun badute ere, herriaren hatsa ondoan sentitzen dute eta herriari eman nahi diote euren egoera eta erabakien berri: **ekainaren 15ean Miarritzen, Irati Aretoan 11.30etan** egingo duten ekitaldi politikoa.

Azaldu zure elkartasuna, azaldu Miarritzera.

EIBARKO HERRIRA



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar **TELEFONORAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Paella lehiaketia urtero bezain arrakastatsua izan zan. LEIRE ITURBE

Urkiko jaixetan be guardasolarekin

Eurixak atsedean gitxi emon arren, giro onian pasau eben asteburua Urkin. Programia aurreko urtietakuaren antzerakua izanda be, eguraldixaren eragiñez-edo, beste urte batzuetan baiño jende gitxiago ibilli da. Edozelan be, Arrateko Andra Mari ikastetxiak eta auzoko beste arkupiak jaixa salbatzia lortu eben.



3 greba egun Metalak deittuta

Metalgintzako hitzamenaren aldeko burrukiak aurrera segitzen dau Gipuzkuan eta, horren harira, datorren astian hiru egunetarako (ekaiñaren 17, 19 eta 21erako) greba deittu dabe LABek, CCOO eta UGTk. Gure probintzian 50.000 bihargiñeri eragiten detsan ituna uztaillaren 7xan barritzeko asmua dake eta, horregaittik, egun horren aurretik metalgintzarako aldarrikapenak kalera etara nahi dittue, horretarako hainbat mobilizaziño eginda.

Garagardo jaixa domekara arte

Martitzenaz geroztik egunero zabaltzen dabe Garagardo Jaixa Eibar Rugby Taldekuak. Betiko lez, Untzagako karpara doiazekinak garagardo marka eta mota diferentiekien gozatzeko aukeria eukiko dau eta hórreri laguntzeko jatekorik ez da faltako,

txarri-ukalondua, oillasko-broxtetak, saltxitxak eta hanbursesak han bertan preparatzen dittue-eta. Gaiñera, zuzeneko musikia be entzun leike. Rugbilariak Urki taldea omendu dabe aurtengo inauguraziño-ekitaldixan.



Egazelaiko etxietarako izen-emotia

Ipuruan, Egazelaixan egingo dittuen babes ofizialeko 62 etxiak banatzeko zozketan parte hartu nahi dabenak hillaren 19rako egin biharko dau horretarako eskaeria, Etxebiden izena emonda eukitzia ez dalako nahikua izango. Izena emoteko eta bete biharreko baldintzak zeintzuk diran ikusteko Etxebideren webgunera (www.etxebide.euskadi.net), Pegorara edo Gipuzkuako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzara jo leike eta bertan eskabidia aurkeztu. 900 840 101 telefonora be deittu leike, astelehenetik barixakurra 08.30xetatik 20.00etara eta zapatuetan 09.00etatik 15.00etara.

Lankidetzak beketarako eskaerak

Gobernuz Kanpoko Erakundieri garapen programetan erabiltzeko Udalaren diru-laguntzak eskatzeko epia uztaillaren 8xan amaittuko da. Gaztien artian naziñoarteko alkartasuna sustatzeko Elkartasun Bekak eskatzeko asmua dakenak be epe hori eukiko dabe. Informaziño gehixagorako www.eibar.net webgunera sartu edo Pegorara juan leike.





Desfiliak edade guztietako jarraitzailliak izan zittuan. LEIRE ITURBE

Gaztiendako arropen desfilea

Aurreko barixakuan udaberri-udako modia presentatzeko desfilea egiñ eban El Corte Inglesak. T. Etxebarriako denda pareko pa-

sarelan jardun eben modeluak Green Coast, Easy Wear, Shana eta Fórmul@ Joven etxietako jantzixak erakutsi zittuen.

62.900 euro dendarixeri laguntzeko

Martitzenian siñatu zittuen merkataritzari laguntzeko hitzarmenak. Udalak 62.900 euro emon detsez: 12.000 euro Merkatu Plaza sustatzeko Eibar Merkataritza Gune Irekiari (EMGI) emon detsaz, 27.000 euro Dendarien Elkarteari eta 23.900 euro EMGI-ri, ikastaro eta bestelakuak antolatze-ko. Ana Aranberrik (EMGI) eta Nekane Fernándezek (Dendarien Elkartea) siñatu zittuen hitzarmenak. Merkatu Plaziak, bestalde, astelehena ekingo detsa kanpaiña barrixari: zeozer erosten dabeneri txartelak oparituko detsez eta premixuak plazan gastatzeko erosketatxartelak izango dira.



Martitzeneko siñadura ekitaldixa. S.H.

autuan

ATZEGIKUEN JAIXA

Domekan Atzegi alkartekuak jaixa egingo dabe Eibarren. Debabarrenako XVI. Famelixen Topaguneko programia 10.00etan hasiko da, San Andres elizan egingo dan meziarekin. Untzagan erretratu eta gero, bazkaltzera juango dira



MARMITTAKUA

Ekaiñaren 25ian egingo dan XX. Marmittako Txapelketan parte hartu nahi dabenak izena emoteko azken eguna ekaiñaren 19xa izango da (epia 14.30etan itxiko dabe). Zuzenian Pegorara juan biharko da edo, bestela, 010 / 943708400 telefono zenbakixetara deittu. Gehixen jota 30 bikote onartuko dittue eta gitxienez bikotekidietako bat Eibarren erroldatutakua izatia derrigorrezkua izango da. Hiru onenak garaikurra eta 90, 60 eta 30 euro jasoko dittue.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatoria eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	
10 Neurologia (BERRIA)	

asteko
224.458
datua

euro kostauko da Polonia Etxeberrian igogailua ipintzia, aurreikusitako 328.517 euroak baiño %31'6 gitxiago; 12'78 metroko ibilbidia egingo dau, 8 lagun edo 630 kilo hartzeko ahalmenarekin.

On Ekin sarixak banatu dittue

Ekingune alkartiak antolatutako On Ekin enpresa eta proiektu lehiaketako sarixak aurreko aste-ko eguenian banatu zittuen Depor tabernan, horretarako bereziki egindako afarixan: lehen edizio honetan lehelengo sarixa Yan Arte Designing enpresako Nagore Tenak eruan eban, berak diseiñautako fianbreriari esker (afarira juandakuak emondako diruari esker 1.085 euro batu zittuen). Bigarren sarixa Idurre Zuazuak (Zualda Certificaciones) jaso eban, eraikiñen energixa-zertifikaziñorako proiektuari esker eta hirugarren sarixa Kerala estetikako Yoanna



Nagore Tenak eruan zeban lehelengo sarixa, fianbrera batekin.

Rochari emon zetsen, interneteko bideo-dendari lotutako proiektuarengaitik.

Jatekuak batzeko kanpaina

Oin dala hillabete batzuk egin dabena moduan, Eibarko Sozialistak taldekuak atzera be janarixa batzeko kanpaina ipiñi dabe martxan, premiñia daken famelixer laguntzeko asmoz: oli-xua, azukria, arroza, pasta, len-

tejak, garbantzuak, kontserbak eta holakuak emon nahi dabena, Untzagako Casa del Pueblo-ra jua biharko dau, 2. pisura, produktuak bertan batzen dihardue-eta. Azken eguna ekaiñaren 20xa izango da.



Geltoki Market azokia Estaziñuan

Zona 10 alkartekuak Geltoki Market, bigarren eskuko azokia antolatu dabe bixarko Estaziño kalia: 10.30xetan hasi eta 15.30xak arte azokan parte hartzen dabena eskindutakuak erosteko aukeria egongo da eta, horrekin batera, umiendako tallarrak, break-dance eta body-paint erakustaldixak, zuzeneko musika emanaldixak eta beste jarduera batzuk preparau dittue.



Baldosak aldatzeko biharrak

Egunotan Toribio Etxebarria kalia eta inguruan galtzadaha-harririk aldatzen eta konpontzen dihardue eta, hori dala-ta, trafikiko aldaketak egon dira. Bestalde, anbulatorixo parian eguan Toribio Etxebarriaren bustua lekuz aldatu eta bere izena dakan kaliaen hasieran daguan lorategira eruan dabe.



Igerilekuak bixar ekingo detsa uda sasoiari

Eguraldixak aurtan ez dau larregi laguntzen, baiña, edozelan be, kanpoko igerilekuak bixar ekingo detsa udako sasoiari eta irailera arte egunero zabalduko dabe, 10.30xetatik 20.00etara.





ELIANA MODREGO (KZguneako arduraduna)

“Oso beharrezkoa den zerbitzu publikoa ematen dihardugu”

Hileak dira edozein gairen inguruan berba egiten dugunean ia pentsatu barik, automatikoki "murrizketak" berba nonbaiten sartzen. Krisi ekonomikoaren jatorri eta bestelakoak argitu barik jarraitzen dute, baina bere eraginik zuzenena edozein talde, enpresa edo erakunderen aurrekontuak osatzeko orduan edozeinek ikusteko modukoa da. Izan ere, krisia hasi zenetik urtetik urtera gero eta diru gutxiago dago toki guztietan orain arteko proiektu kopuru berbera kudeatu eta aurrera ateratzeko. Eta inor ere ez da libratzen. Murrizketak direla eta, orain hamabi urte jaio zen KZguneen proiektu osoa kolokan ikusten dute bertako beharginek, Eibarko arduradunak berak azaldu digun moduan. kzeitxi.blogspot.com.es bloga sortu dute informazioa bateratzeko eta twitter-en @KZguneakEzltxi

- Hainbat herritan KZguneen ordutegia erdira murrizten hasi dira, dinamizatzaile batzuk kaleratu dituzte... zer pasatzen da?

KZguneentzat orain arte egon den aurrekontu osoa Eusko Jaurlaritzak erdira murriztu du eta, hortik aparte, ez dakigu askoz gehiago. Eibar-ko KZgunean orain arteko martxan segitzen dugu orain arte behintzat, momentuz ez zaigu inor etorri ezer aldatzen dela esatera, baina inguruko herrietan gertatutakoa ikusita, batek daki hemendik pare bat hilabetera zer gerta daitekeen. Izan ere, gure inguruko KZgune gehienetan ordutegia erdira murriztu dute, 8 ordutik 4 ordutara pasatuta. Gipuzkoan 8 ordu zabaltzen jarraitzen dugun bakarrenetakoak geu gara, Zarautz eta Zumarragarekin batera. Zuzen-dari aldaketarekin batera etorri dira ordutegi murrizketak eta bestelako guztiak. Nik amatasun baja bat ordezkatzeko dihardut, adibidez, eta nere moduan aldi baterako

kontratuarekin gauden beharginek hasiera batean datorren urteko ekainera arteko kontratua genuen, baina orain, gauzak dauden moduan egonda, urte honetako abendura bitartekoa besterik ez digute ziurtatu.

- Jakin dugunez, behargin batzuk kaleratu dituzte, ezta?

Bai, hala da, sei edo zazpi kalera bota dituzte eta beste-ei, ezertarako astirik eman barik eta alde aurretik ezer azaldu gabe, bapatean bulegora sartu zaizkie hiru aukera mahai gainera botata: zentruaren ordutegia murriztuko dutela eta, jornada osoko kontratua izatetik jornada erdiko izatera pasatzea; KZguneako beharra laga eta Donostiara, errelebotan, ordutegi horri dagokion soldata aplikatu barik eta dietak norberak ordainduta, Euskaltelen beste proiektu batera beharrera joatea; eta horietako bat ere ez onartu ezean, kontratua eten eta kalera joatea. Baina, jakina, lehen aukera bietan eskainitako lan baldintzekin ados egon ez arren,

kalera joatea aukeratuz gero, norberak hartutako erabakitzat jotzen dute eta, beraz, borondatezko kaleratzeei dagozkie baldintzak aplikatzen zaizkio.

- Nolako da KZguneako martxa? Nola funtzionatzen duzue bulegoan?

Hemen zerbitzu mordera eta era ezberdinetakoak eskaintzen zaizkie herritarrei, musutruk. Jende askorengana ailegatzeko gara, gure bezeroek oso adin tarte zabala betetzen dute eta atzerritarak, bertakoak, andrazkoak, gizonezkoak... denetarik izaten dugu. KZguneetan oso beharrezkoa den zerbitzu publikoa ematen dugu. Adibidez, askori beharra bilatzera joan behar dutenerako kurrikuluma prestatzen laguntzen diogu, edo atzerritarrei euren agiri eta bestelakoak eskaneatzen, internet bidez bidaltzen...

- Besteak beste, hilero hainbat ikastaro antolatzen dituzue, ezta?

Bai, ikastaro eskaintza zabalera prestatzen dugu hilero eta

horietan parte hartzea erabat doan da, toki guztiak bete arte edozeinek dauka izena eman eta bertan landutako gaietan trebatzeko. Gainera, ikastarok gaur egun erabilgarritasun handia daukaten ingurukoak izaten dira: korreo elektronikoa nola erabili, sare sozialak, IT txartela, argazkien tratamendurako programak... KZguneetatik kanpo, beste edozein tokitan horrelakoak ikastea oso garestia izaten da sarritan eta, beraz, hona etortzen diren askok ezingo lukete ordaindu.

Horrez gain, interneten doan nabigatzeko aukera ere ematen dugu, zerbitzua erabiltzeko nahikoa da alta ematea eta egunero 45 minutuz interneten ibil daiteke ezer ordaindu barik eta 5 orrialde inprimatu ditzakete. Batz beste, egunero 40 bat lagun etortzen zaizkigu hona internetera konektatuta dauden ordenagailuetan nabigatzera eta, hortik aparte, beti betetzen diren ikastaro bakoitzeko beste hamar bat lagun-edo.

Martitzenian Portaleko areto nagusixa txiki geratu zan, Wert ministruak aplikau nahi daben Hezkuntza Erreformiaren gaiñian berba egitteko Eibarko LOMCE Ez taldekuak antolatutako hitzaldixan. Irakasliak, gurasuak eta herritarrak oro har beldurrarekin begiratzen detse daganeko onartuta dagan legiaren aurreproiektuari eta berarekin batera etor leikiazen kanbixueri. Aste honetako ekitaldixan batutako ehundik gora lagunek interes haundixarekin jarraitu zittuen hizlarixen esplikaziñuak eta, hitzaldixa amaittu eta gero, erreformia ez aplikatzeko biharrari ekiteko prest agertu ziran asko. Uztailak 10ian billera irekixa egingo da eta, bixen bittartian, taldiarekin kontaktuan ipintzeko eibarlomceriez@gmail.com helbidera idatzi leike.



Eskolako urte beltzenetara bueltan

Sortzen Ikasbatuaz-eko Eli Zubiagak azaldu zittuan Wert ministruaren eskutik indarrian ipiñi nahi daben erreformako puntu inportantienak, baiña horrerri ekin aurretik eta gaixari sarrerria egitteko, LOMCE dalakuaren asmua "estadu zentralista bateg, dana Madrilletik kontrolatzeko bere ahalegiñari jarraituta planteatzen daben hezkuntza eredu atzerakoia ezartzia" dala esan eban Zubiagak: "Hezkuntzaren erreformarako

32 urtian egindako 11. legia da haxe, batatz bestekua kalkulatzen hasiz gero, emaitza gure hezkuntza sistemia hiru urterri behin kanbixatzen dabela litzake. Horrek argi lagatzen dau agintarixak hezkuntzaren gaiñian egitten daben erabilleria zelakua dan. Hezkuntza sistemia gobernuen eta aldaketa politikuen menpe dago, horrek dakarren guztiarekin. Oin momentuan agintian dagan PP alderdixak ondo definitutako estadu eredu nahi



dau, eremua zorrotz markatuta eta hezkuntzarako planteatzen daben erreformia horren islada zuzena da".

Hezkuntzarako aurrekontuak ezin izan detsa krisixaren eragiñari ihes egin eta, murrizketak tartian, hezkuntzan Europako batatz bestekua baiño %1'7 gixiago gastatzen dabe estaduan: "Murrizketen eragiñez hezkuntzaren kalidadiak behera egitten dau: bestiak beste, gaur egunian irakaslien ordezkapenetako asko bete barik geratzen dira, edo, kasurik onenian, berandu betetzen dittue. Gero eta ikasle gehixago dagoz, baiña paradójikoki hórrendako irakasliak gero eta gitxiago dira".

Tramitaziñuan dagan zirriborua

LOMCE edo Wert legia aurreproiektu modura onartu dabe Espaiñiako ministro kontseiluan eta oiñ, ekaiñian oso-



Gaixak kezka eta interes haundixa piztu dau. Areto nagusiko ehun aulkixak bete ziran martitzenian.



ALDAKETA NAGUSIÑAK

- Ordutegi eta beste hainbaten gaineko **erabagitzeko ahalmena** estatuak berarendako gorde nahi dau, beste edozeini erabagitzeko ahalmena ukatuta.
- Legiaren zirriborruak ez dau gauza haundirik esaten **Haur Hezkuntzaren** gainian
- Lege barrixak ikasliak euren gaittasun edo ahalmenari begira **alkarregandik bereiztu** nahi ditu 14 urte bete orduko, emaitza hobiak lortuko dituen aitzakixarekin. Baiña European eredu modura erabiltzen dan **Finlandiaren kasuan** ez dabe ikaslerik banatzen 16 urte bete aurretik.
- **Euskeria eta euskal literatura** hirugarren maillakuak izatera pasauko lirakez. Lege barrixak hiru maillatan banatzen ditu irakasgai edo asignaturak "garrantzixaren" arabera. Oinarrizko irakasgaietan (enborrekuetan) Hezkuntza Ministerixuak erabagiko leuke edukixen %100, baita ebaluatzeko irizpidiak, gaittasunen lorpena, ebaluaziño estandarrek eta gitxieneko ordutegixa be, euskal administraziñuari parte hartzeko aukerarik laga barik.
- Ikasliak, etapa bakotxaren amaieran, eskoliak ezarritako azterketak gaintiziaz aparte, ikastetxetik kanpoko espezialistak egindako ebaluaziñua be gaintizia derrigorrezkua izango da, aurrera egiñ ahal izateko. Europako herrialde gehixenetan ez da holakorik gertatzen.
- Eskola ordutegixaren barruan erlijñua ikastia (eta gaintizia) derrigorrezkua izatia nahi dabe eta lege barrixan ordu gehixago eskintzen jakoz erlijñuari tutoretzari baiño. Irakasgaixan zer ikasi Elizak berak erabagigo leuke.
- Musika, Plastika, Hiritartasunerako Hezkuntza edo Teknologixa moduko irakasgaixak desagertarazi nahi ditue.



Eibarko LOMCE Ez taldiak lehelengo pausuak emoten dihardu eta, hitzaldixa emoteko, Eli Zubiaga eta Ruben Iglesias gonbidatu zittuen.



ko emendakiñak edo zuzenketa egitteko tartia egongo da. Zuzenketa partzialak egitteko tartia irailian zabalduko dabela pentsatzen dabe eta, epia amaittuta, parlamentura eruan-go leukie testua, urrixan edo azaruan, horren gaineko debatiari ekiteko.

Pauso hórrek emonda legia onartuko balebe, lehelengo fase batian 2014-2015 ikasturtian

indarrarian sartuko leukiela pentsatzen dabe, hurrengo ikasturtian (2015-2016) erabat ezartzen amaitzeko.

Edozelan be, eta autua politikuen esku egonda, Iñigo Urkullu lehendakarixak LOMCE legia ezartzia "saihesteko" asmo garbixa agertu dau, beti be Eusko Legebiltzarrak eta hezkuntza inguruko eragilliak bablesa emoten badetse.



%70erainoko deskontuak
Ekainaren 30ean
kareaga ITXIKO DUGU
- Bidebarrieta, 10 -
Tif. 943 20 80 45



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27



Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

© 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com



GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugaleta · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



100 años
SERVICIOS FUNERARIOS
Certificados
Funeuskadi y Crematorios

Aitor Alfonso 19 urteko eibartarra azpitxapeldun geratu zen zapatuan Gernikan jokaturako Euskadiko fitness txapelketan. Hondartza-gorputzen mailan parte hartzeko asmoarekin joan zen lehiaketara, baina epaileek fitness mailan parte hartzera behartu zuten, hori zegokiolakoan. Sustoa gaudituta, bikain jardun zuen, maila handiagoko aurkarien aurrean bigarren postuan sailkatzeraino. Hori izango da datorren urterako erronka: fitness-erako buru-belarri prestatu, "akats guztiak zuzenduta".

- Zer moduz txapelketan? Itxaropenak bete ziren edo ezustekorik izan zen?

Dena ezustekoa izan zen. Hondartza-gorputzetarako nengoen prestatuta, itxaropenetsu. Baina epaileek fitness-ean parte hartu behar nuela erabaki zuten. Hor beldurtu egin nintzen, aurkariak ni baino prestatuago eta helduagoak ere bazirelako. Eskerrak dena ondo irten zela.

- Zenbat urte kirola praktikatzen? Zergatik hasi zinen?

Hiru urte daramatzat. Bi eman ditut hondartza-gorputzean eta hau fitness-ean. Lesio baten ondorioz hasi nintzen: foballeko atezaina nintzen eta ukondoa min hartu nuen. Errekuperatzeko, pesekin-eta hasi nintzen eta ordutik.

- Sakrifizio handiak egin behar dituzu gorputzari eusteko?

Dieta eta entrenamendu zorrotzak jarraitu behar dira. Karbohidratoak kontrolatu behar ditugu, proteina asko hartu, grasak ezabatu. Txerrikiak eta halakoak guztiz baztertu behar

ditugu. Zeozer hartuta ere, berehala erretzen dut, kirola egitea asko gustatzen zait-eta.

- Zenbat ordu sartzen dituzu astean?

Astero lau aldiz entrenatzen dut, ordubete bakoitzean. Lehiaketak gerturatzen doazen neurrian, hiru hilabete lehenagotik, bikoiztu egiten dut lan hori.

- Zer du erakargarri kirol horrek? Fama txarrik?


Duen ospe txarra esteroideekin lotuta doa. Egia esan, kaltegarriak dira gure kirolerako. Gorputz ederrak lortzean dago erakargarritasuna.

- Gorputza margotzen denboran asko behar duzue?

Lehiaketa egunean bertan ordu erdian prestatu zidaten. Bezperan oinarritzko kapa leuna eman nuen.

- Zein egoeratan dago fitness-a Euskal Herrian?

Gero eta jende gehiago gaudete: iazko parte-hartzaileen kopurua bikoiztu dugu aurten. Neskei falta zaie aurrera egiteko urratsa ematea.



Aitor Alfonso
(FITNESS KIROLARIA)

"Fitness-ak gorputza zaintzen laguntzen du"

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txalixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Fone 943 202564

LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO izen-ematea zabalik

Azitainen, sasoi batean Lantegi Eskola hartu zuen etxean dagoen Lanbide Heziketarako ikastetxeak 2013-14 ikasturte berrirako matrikulazioa martxan dauka eta izena eman nahi dutenek ekainaren 21era arteko epea izango dute horretarako. DBH amaitu ez duten 16-18 urte bitarteko gazteentzat bereziki pentsatutako zentruan doako ikastaroak eskaintzen dituzte eta, aurreko ikasturtean egin dakoaren bidetik, hurrengo ikasturtean ere espezialitate bitan trebatzeko aukera eskainiko diete izena ematen duten gazteei: sukaldaritza eta zerbitzari-lana irakatsiko dute batetik eta egur-zurgintza (fabrikazioa, muntaketa eta akabera) bestetik.

Zentruko arduradunen berbetan, "ematen ditugun prestakuntza-ikastaroak DBHko graduatua lortu ez duten gazteentzako dira. Ofizioa erakusten zaie eta, lanaren osagarri legez, DBHko azterketak gainditzeko prestakuntza eta erdi-maila-

ko graduaren sarre-rako azterketara aurkezteko aukera ere ematen zaie. Gainera, bigarren urtean, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute". Kurtso berria 2013ko irailean hasi eta 2014ko ekainean amaituko da eta klaseak astelehenetik barixakura emango dituzte, 08.00etatik 14.00etara.

Sukaldaritza eta zerbitzari-lana espezialitatea ikastea aukeratzen dutenek, besteak beste, janariak nola prestatu eta kontserbatu, errezeta erraz batzuk eta piska bat zailagoak nola egin eta horiek nola zerbitzatu ikasiko dute. Eta egur-zurgintzaren fabrikazioa, muntaketa eta akabera modulan honako gaiak jorratuko dituzte: makinariaren inguruko ezagutza, altzarien produktzioa eta zaintza eta egur-zurgintzarako hainbat produktu. Azkenik, muntaketa, instalazioa eta produktuen aplikazioa ere landuko dute.

Matrikula doan eta talde txikiak

Arduradunek diotenari jarraituta, "matrikula doan da eta taldeak txikiak. Ikasleei orientazio pertsonalizatua eskaintzen zaie, alor pertsonalean, bai prestakuntzaren inguruan bai lan alorraren inguruan. Bestalde, ikasturtean zehar izaera ludikoko eta kultureko hainbat jarduera antolatzen dira eskolaz kanpo".



Sukaldaritza eta zerbitzari-lana espezialitatea aukeratu daiteke.

Matrikula egin nahi dutenek Pegoran hirtzordua har dezakete, 943-708400 telefonora deituta edo pegora@eibar.net helbidera idatzita. Matrikula egiteko aurkeztu beharreko agiriak hauek dira: errolda-ziurtagiria, NANaren fotokopia, duela gutxi egindako argazki bat eta gainditu den azkenengo ikasturtearen ziurtagiria.

Eskualdean lanbide hastapeneko eskaintza osatzen, Eibarko zentruarekin batera Ermua-Mallabiakoak elkarlanean dihardu. Ermuko ikastetxean ikas daitezkeen ofizioak ibilgailu-konponketarako laguntzailea, ileapaindegi-laguntzailea eta mekanizatuko langilea dira. Ikastaro horiei buruz informazio gehiago eskuratu nahi duenak 943176422 telefonora deitu dezake.

Lanbide hastapenerako zentroa 1989. urtean sortu zen Lanbide Hastapena izenarekin; orduan Ikasbat-ek, Debegesari atxikitako erakundeak kudeatzen zuen. 1995. urtean, egoitza Elgoibarren izan arren Eibarko Udalaren eskuetara pasatu zen eta 2011. urtean Eibarrera etorri zen, behin betiko gure herrian geratzeko. Lehenago klase teorikoak Ondamendiko (Ermua) haurtzaindegi zaharrea ematen ziren eta klase praktikoak Azitainen, hiltegi zaharrena instalazioetan. Aurrerantzean, baina, jarduera osoa Azitainen eskainiko dute.



Egur-zurgintzaren fabrikazioaren ingurukoak ikas daitezke.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Aire berriak!

Rhòl Estilistak

Estaziño, 4
943 254776

GREMIOEN



lanak **ALTUERAN**

Eibar Vertical
Aldamiorik gabeko lanak altueran
www.eibarvertical.es

Errekatxu, 11 - behea
Tel. 674 81 41 65 / 615 74 97 81
www.eibarvertical.es eibarvertical@eibarvertical.es

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

Tfnoa: 943-530356
Mobila 688-674242
Barrena, 21 - 3. A

ALBERTO ELEKTRIZITATEA
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES

INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak antenak - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

Barrena 26 / 20.600 Eibar/ Tf943 121642 / F943 204307/ ec@electricidadcuadra.com

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA MANTENUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

GURIA

ELEKTRIZITATEA
Muntaia eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

barra 677 51 24 62
943 20 06 97

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171

Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



HODI-LIBRATZEAK

ATAX

- Hodi-libratzeak
- Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin
- Ur ateratzea ufalen ondoren

www.desatax.com
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

IGELTSEROAK

IGELTSERITZA

CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto)
600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltsaritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Fontanería Jardines

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTALARLOKO SOLUZIOAK

c.acha@euskaltel.net eta faxa:
ERAKUSKETA: Arikitzaneko Zubia 943 20 39 03

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Asteburu betea sanjuanetarako girotzeko

Sanjuanak ate joka ditugu eta gaur bertan aurkeztu duten egitarauak jasotako jarduera batzuk asteburu honetan egingo dira: gaur 19.30etan Dantzari Eguna hartuko du Untzagak, Kezka dantza taldekoen eskutik. 20.00etan, berriz, Ipurua kiroldegian Sanjuanetako XXV. Igeriketa txapelketa jokatuko da eta ordu berean, baina Coliseoan Eibarko Dantza Garaikide taldeak emanaldia eskainiko du. Eta gauetan, 22.00etan hasiko da Astelena frontoian Gasteiz Sportek antolatutako Boxeo Gaua.

Bihar goizetik ekingo zaie ekitaldiei: 09.00etan mustako txakurren probintziako txapelketa egingo da Arraten; 11.00etan Hezkuntza Esparruan XXII. Tiro Txapelketa jokatuko da, haizezko armekin; 18.00etatik 21.00etara Ipurua kiroldegiak Eibarko Hiria squash sariaren finalak hartuko ditu; eta 18.00etatik 20.00etara arku-tiroa egingo dute Urko arkularien klubekoek Txaltxa Zelaiko kioskoan.

Domekan berriz ere goizetik ekingo zaie jardueri: 10.30etan Eibarko IV txikien duatloia



Errekortadoreen jaialdia izango da domekan, 18.00etan hasita. Marques de Sakaren zezenak emango dute jokoa.

irtengo da Untzagatik; 12.30etan Coliseoan Isabel Laspiuren ikasleek piano kontzertua emango dute; ordu berean, baina Untzagan, Ipurua Gimnasia

Erritmiko taldeak erakustaldia egingo du; eta arratsaldean, 18.00etatik aurrera errekortadoreen jaialdia hartuko du zezen plazak, Marqués de Sakarekin.



Artea ikasbide Arrateko Andra Marin

Beste kurtso batzuetan egindakoaren bidetik, Arrateko Andra Mari ikastetxeko 2. zikloko ikasleek "Artea Ikasbide" proiektuan parte hartu dute amaitzean dagoen ikasturtean, erretiratuak ikus dezakezen lana sortzeko beharrez. Artelana astelehenez geroztik Bilboko Guggenheim museoan dago ikusgai, proiektu beraren baitan sortutako beste artelan batzuekin batera. Erakusketa abuztuaren 25era arte egongo da martxan.



Sagarzazuren margolanak Topalekuan

Egunotan Topalekuak hartzen duen Javier Sagarzazuren margo erakusketa astelehenera arte (hilaren 17ra arte) egongo da ikusgai, asteburuan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara eta gaur eta astelehenean 19.00etatik 21.00etara.



Sagarzazuren lanak astelehenera arte daude ikusgai. LEIRE ITURBE

Ikasturte amaierako erakusketa Portalean

Dibujo eta Zeramika Udal Eskolakoek ikasturtea amaitu dute eta, urteroko martxari jarraituta, erakusketa ipini dute ikusgai Portalean. Ekainaren 18ra arte egongo da bisitatzeko aukera, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



Udako ikastaroak aurkeztu dituzte Markeskuan (erdiak Eibarren izango dira)

Eguaztenean aurkeztu zituzten 41. udako ikastaroak Markeskuan Karmele Artetxe UEUko zuzendariak eta Irati Iciar UEUko udako ikastaroetako arduradunak. Iazko arrakasta errepikatzeko asmoz, inoiz baino ikastaro gehiago prestatu dituzte: 41 ikastaroetatik 20 Eibarren bertan (Markeskuan) emango dira, bederatzai Baionan, 11 Iruñean eta bat Gernikan: "Sei jakintza-arlotan banatu ditugu eta ikastaroekin batera hiru jardunaldi antolatu ditugu baita ere".

Urteroko moduan, hainbat Udalek (Eibarkoak tartean)



Irati Iciar eta Karmele Artetxe izan ziren aurkezpenean. LEIRE ITURBE

eta beste erakunde batzuk diru-laguntzak emango dituzte. Izena emateko epea jadanik zabalik dago eta ikastaro bakoitza hasi baino

astebete lehenago itxiko dute. Informazio zehatza eskuratzeko eta matrikula betetzeko www.ueu.org helbidera jo behar da.



Sostokoak ederto Valladoliden

Aurreko asteburuan Valladoliden izan ziren Sostoa abesbatzako hainbat lagun, hango Euskal Etxekoek gonbidatuta. Bidaia turismo piska bat egiteko eta San Miguel eta San Julian elizan kontzertua emateko aprobetxatu zuten eibartarrek eta, handik bueltan, ondo baino hobeto ibili zirela kontatu digute.

Euskal Herriko panoramikak Untzagan

Gaur 19.30etan zabalduko dute Untzagako jubilatutako etxean Einer Rodriguez Ponceren "Euskal Herriko panoramikak" argazki erakusketa. Uztailaren 7ra arte martxan egongo den erakusketa asteleheneetik barixakura 19.15etatik 21.15etara bisitatzeko aukera izango da eta zapatu eta domeketan, berriaz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.15etatik 21.15etara.



laburrak

GAZTELEKUA

Gaur hasiko da hilaren 22an egingo den sanjuanetako afari-meriendarako izen emateko epea Indianokua gaztelekuan (azken eguna hilaren 20a izango da). Bihar zapatua Txaltxa Zelaiko arku jaurtiketan parte hartzeko asmoa dute, bestalde eta domekan Play eta Wii-an jarduteko aukera izango da.



MATRIKULA ITZULTZEA

Udal Euskaltegiko matrikularen %50 itzultzeko eskaerak Pegoran egin beharko dira, ekainaren 22tik uztailaren 1 Ira (biak barne). Informazio gehiagorako www.eibar.net helbidera jo daiteke.

EH Sukarra, Lendakaris Muertos eta Vendetta Amañan

Uztailaren 5ean 23.30etatik aurrera EH Sukarra, Lendakaris Muertos eta Vendetta taldeak Amañako plazan egongo dira kontzertua ematen. Betiko moduan, musutruk izango da, baina antolatzaileek bono-laguntzak atera dituzte, ordaindu beharreko gastuekin lagundu nahi dutenentzat. Hilaren amaieran aurkeztuko duten jai egitarauan jasotako beste batzuk Raices Navarrasen jotak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizuna eta Golden Apple Quartet-en emanaldia dira.

Aitor Arakistain gidaria nagusi Udanako igoeran

Escuderia Eibarko Aitor Arakistainek beste garaipen bat eskuratu zuen mendi sailkapenerako baliagarria zen Udanako igoeran. Probaren 8. edizioan, bera monoplazetan nagusitu zen moduan, David Ardions onena izan zen turismoetan. Euriak mugatutako proban, Arakistainen atzetik sailkatu ziren Joseba Iraola eta Arkaitz Ordoki. Klaseei begira, honakoak izan ziren garaileak: 1ean, Iñaki Ramonde; 2an, David Ardions; 3an, Gorka Idigoras; 4an, Pablo Pelaez; 5ean, Ekain Eizagaetxeberria; 6an, Lebeiti; 7an, Aitor Arakistain, Silver Car S2 auto batekin; eta 8an, Aitor Zabaleta. Historikoetan, Rafa Díaz nagusitu zen; eta Formula Libreko Euskal sarian, Txus Jaió.



Aitor Arakistainek Silver Car S2 auto batekin irabazi zuen Udanan.



Kalamuako ordezkari bi gerriko beltzaren bila

Zapatuan Tolosako Usabal kiroldegian jokaturako judoko gerriko beltzaren azterketan, Julio Gallegok gerriko beltza 6. dana eskuratu zuen eta Iñaki Manzisidorrek 1. dana; Manu Agirre epai-mahaian jardun zuen.

Aurreko asteburuan, bestalde, Ondarroako infantil mailako XXIII. torneoan Kalamua klubeko hainbat ordezkari izan ziren eta hor Markel Simonek, Koldo Estenagak eta Gaizka Merino urrezko domina bana eskuratu zuten. Euren taldekideek zilarrezko beste domina bi eta brontzezko bost ekarri zituzten Eibarrera.



Oñatin jokaturako finaleran, Klub Deportiboko bikote biak izan ziren garaile: Mikel Azkargorta, Ander Sanchez, Aner Berserandi, Mikel Camina eta Kepa Simon.

Udaberri Torneoko hiru finalerdi bihar Kiroldegian

Aurreko asteburuan garaile irten eta gero, Deporrek hiru ordezkari izango dira biharko finalerdiko kanporaketetan: Narbaizak Zaldibiako Ori izango du aurkari, Larraurik Zumarragako Izagirre eta Zubizarretak Bergarako Diez. Jaialdia 16.15etan hasiko da.

San Juan torneoak, bestalde, finalerdietako bigarren jardunaldia

biziko du martitzenean Astelenan, 19.15etan: hor Bengoetxea eta Unamunzaga eibartarren arteko lehia izango da 4 eta erdiaren barruan eta Zubizarreta-Txurruka eta Larreategi-Iñarraren artekoa bina-ka. Aurreko jardunaldian, Zuazuak (kaiolaren barruan) eta Arrizabalaga-Agirresarobek lortu zuten 22an finala jokatzeko txartela.

Saskibaloian probatzeko aukera

Hori da Katu Kalek eskaintzen diena kirol horretan jardutea nahi dutenei. Taldeak trantsizio denboraldia egin du eta, goiko aldean ibiltzeko asmoa bazuen ere, azkenean taularen erdi aldean sailkatu da. Lesioak izan dira negatiboena eta Iñigoren aportazioa, bestalde, arlorik baikorrena. Denboraldia amaituta, taldeak entrenatzen jarraitzen du kiroldegian, martitzen eta eguenetan, 20.00etatik 21.00etara: interesatuok bertara joan eta proba egin dezakezue.



Waterpoloko alebinak Gipuzkoako txapeldun berriro

Zapatuan Hernanin jokaturako lau finaleratik, Urbat-Urkoitronikekoek alebinetako txapela jantzi zuten, Waterpolo Donostiri 11-9 irabazi eta gero. Infantil, kadete eta jubencil mailakoek azpitxapel-

dun izatearekin konformatu behar izan zuten. Denboraldia amaitzeko, uztailean jokatu diren Mutrikuko eta A Coruñaeko nazioarteko torneoak geratzen zaizkie Urbatekoei.

Korta anai-arrebak lehenak Galdaramiñon

Iñakik ordubete 11 minutu eta 14 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko eta Maide-rrek 1h29'47". Gizonezkoetan minutua eta 20 segundo kendu zizkion irabazle azpeitiarrak Zestoako Ion Alberdi bigarrenari; emakumezkoetan, baina, gauzak estuago joan ziren, eta



Atzegikoen ibilaldian parte hartu zutenak.

azpeitiarrak azken metroetan lortu zuen Aitziber Urkiola eibartarra aurreratzea (azkenean 8 segundoko tartea izan zen euren artean). Guztira 125 parte-hartzaile izan ziren, eurretatik 34 Eibarkoak: Igor Gallastegi izan zen onena, 10. postuan.

F. Fernandez, Biribai eta Astigarraga eibartarrak. PERIKO IRIONDO



Arantzazu-Aizkorri-Otzaurte euripean

Eguraldi hori egokitu zitzaizen Klub Deportivo bako mendiko taldeko azken irteeran parte hartu zutenei. 37 lagun izan ziren eguraldiaren aurrean kokildu ez zirenak eta, ondo bustita izan bazen ere, mendi ibilbidea amaitu zutenak.



Concepto Egilek ezetz esan dio 2. mailari

Bizi dugun egoera ekonomikoak bultzatuta, areto-foballeko Debabarreneko talde nagusiak uko egin behar izan dio kantxan lortutako mailari eta datorren denboraldian aurtengo maila berean jarraituko du. Hori bai, 25 ur-

te egiten duen taldeak Espainiako Kopan parte hartzeko eskubidea izango du eta, dagoeneko, entrenatzailea fitxatu du: Jota Arregi, Gasteizko Atenea taldetik datorrena, han ibilbide luzea egin eta gero.

berriak

SQUASH-A

Gaur eta bihar Eibar Hiria squash txapelketaren X. edizioa jokatu da Ipurua kiroldegian. 32 parte-hartzaile izango ditu, tartean euskal ranking-eko zortzi onenetik zazpi. Eibarko hamar jokalaririk izango dira: Alberto Ferreiro, Jon Losada, Sergio Salgado, Jon Arana, Oscar Ferreiro, Andoni Etxebarria, Ander Curiel, Jose Gallastegi, Enrike Lopez eta Fernando Valenciano.



UDALETAKO KIROLA

Bi egun hartu zituzten Coliseoan egin ziren "Udaletako kirola: ereduaren berrazterketa" gaiaren inguruan Udaletako Kirol Politiken Jardunaldiak. Amaitzeko ekitaldian horrelako topaketak antolatzen ibili zen Miguel Diego zena omendu zuten.

DUATLOIA

Domekan, 10.30etan hasita, jokatu da gurean Deltecok antolatutako IV. Duetloia Txikia. Benjaminak izango dira lehenak parte hartzen, alebinekin jarraitu eta infantilekin amaitzeko. Proba Untzaga, T. Etxebarria eta Calbeton kaleen artean izango da.

MARIA ETXEBERRIA ZULOAGA

(BONI LARRAÑAGA "PLAENTXI"REN ALARGUNA)

1. URTEURRENA (2012-VI-16)



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN

Zure familia





Irati Yarza, Miriam Blanco, Lorena Holgado eta Jennifer Hernández.

Ipuruako gimnasten erakustaldia Untzagan

Urtero ohikoa denez, Ipurua klube-ko gimnasten taldeak lehiaketetan aurkezten dituzten ariketa batzuk eta okasiorako prestatutako beste koreografia batzuk erakutsiko dituzte Untzagan domekan 12.30etatik aurrera. Klubak jarraitzen du sariak eskuratzen eta, horrela, amateur mailako Euskadiko txapelketan Lorea Armendariz eta Graxi Arregi azpitxapelkun izan ziren kadeteetan eta jubenetan, hurrenez hurren. Etziko erakustaldiak entrenamendurako balioko die hilaren 20an Valladoliden Espainiako txapelketan jardungo duten Blanco, Hernandez, Holgado, Yarza eta Bediari.

Ibai Diez Gipuzkoako txapelketa hiru-txirlotan

42 txirlorerekin, San Migueleko Unai Elorzak eta Lasturreko Gotzon Urangak baino bi gehiagorekin, irabazi zuen Asola-Berriko Ibai Diezek Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren 44. edizioa. Emakumezkoetan Floreagako Idoia Muñoz izan zen onena, nagusietan Asola-Berriko Bittor Astigarraga eta jubenetan beste eibartar bat, Egoitz Blanco. Hilaren 22an Lehendakari Saria izango da jokoan Azpeitiko Garmendipen, Gipuzkoako 64 onenen artean.



Eibarko kardantxiloak onenak Azitainen

Jose Luis Fdez. Goikoetxearen kardantxilo bik atera zuten puntu gehien txori kantarien JJJ Memoriala - San Juan Sariaren 14. edizioan. Eguraldi kaxkarrak Arraten egin behar zena Azitaingo Altzubarren frontoira eraman zuen txapelketa eta han bildu ziren 50 kardantxilo eta 18 misto edo nahastuak. Kardantxiloetan lortutako garapenekin batera, mistoetan Fco. Javier Luque eibartarra bigarren sailkatu zen, Pedro Fernandez urretxuarraren atzetik.

Jose Luis Fernandez, bere seme-alabekin, sariak jasotzen.

Eibar kanporaketa gaintzera

Eibar KE-k aurrerapausu handia eman zuen Carlos Tartieren Oviedori 1-2 irabazita. Bihar, 19.30etan, Ipuruan jokatu den itzulerako partidurako tarte dute eibartarrek emaitzarekin jokatzeko; hala ere, klubean ez dute "konfiantza larregirik nahi". Sarrera guztiak salduta, Ipurua lepo beteko da eta segurua da Oviedotik ere zaletu mordoa etorriko dela. Eskozia La Bravak hainbat ekitaldi antolatu ditu partidua girotzeko: 12-00etan, herri-poteoa, Koskoren hasita; 15.00etan, bazkaria Eibar Rugby Taldearen karpan; 18.00etan, peñen kontzentrazioa Untzagan eta kalejira Ipuruaraino; 18.45etan, Ipuruan sartu animatzen hasteko; eta 19.25etan, konfeti jaurtiketa.



Partidua ETB1-ek eskainiko du zuzenean.



Boxeoa gaur gauean Astelenan

Katedralak boxeoa eta sanda hartuko ditu gaur gauean, 22.30etatik aurrera. Azken urteotako San Juan egitarauan kale egin ez duen emanaldia neoprofesional eta amateur mailako boxeolarien norgehiagokak erakutsiko ditu, Euskadiko eta Madrilgo ordezkarien arteko borroketan. Jarraian, sanda profesionalen lehiak ere izango dira.

Romarate maisu berriro

Bere maila onenera bueltatu da Urbateko igerilaria. Horrela, asteburuan Cordoban jokatuako Espainiako txapelketan, urrezko bost domina eta zilarrezko beste bat eskuratu zituen. Horrez gain, estatuko beste bi marka hobetu zituen: 200 metro bizkarrean eta 50 bularrean. Bizkarrean beti izan duen maila orain beste estiloetara ere erakusten hasi da.



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MAIDER Urizar Bravo, haraiñegun zortzi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANDER!, atzo hamar urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AITANA, astelehenian hiru urte egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NORA Arana, zure lehen urtebetetzian. Asko maitte zaittugu. Muxu bat guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, IXONE, bixar hiru urte egingo dozuz-en-eta. Millaka patxo potolo, etxekuen partez.



Zorionak, UNAI, haraiñegun sei urte bete zenduaz-en-eta. Patxo bat famelixa, lagun eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, ENEKO, astelehenian zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, BEÑAT, gure etxeko piratak lau urte bete zittuan-eta haraiñegun. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LAUTARO, atzo zazpi urte egin zenduaz-en-eta! Milla muxu zuretzat aitta, ama eta Hodeiren partez.



Zorionak, MARKEL, martitzenian sei urte bete zenduaz-elako. Muxu potolo bat etxekuen eta, batez be, Joneren partez.



Zorionak, JON, gaur bost urte betetzen dozuz-elako. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Ongi etorri, ANDER, maiatzaren 30etik gure artian zagozelako. Izeba Biotza eta etxekuen partez.



Zorionak, IHART (hillaren 20xan sei urte) eta NORA (gaur hiru urte), bixon egunak ospatzen dozuz-elako. Famelixa guztiaren partez.

Zorionak, MIKEL eta DANEL, urtebete eta hiru egitten dozuez-eta. Maite zaittuztegu. Famelixa guztiaren partez.



Hilaren 21ean kaleratuko dugun Sanjuanetako alearen ondoren, Bixamona jaietako ale berezia izango duzue 28an. Kontuan izan azken ale horrek ez duela LAZTANAK EMOTEN tarterik izango: horretarako, hilaren 21ekoa erabili ahal izango duzue edo, bestela, uztailaren 5ekoa.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

14an: 22.30
15ean: 19.45, 22.30
16an: 20.00
17an: 20.30

"El lado bueno de las cosas"

Zuzendaria: David Russell



(2 ARETOAN)

14an: 22.30
15ean: 19.45, 22.30
16an: 20.00
17an: 20.30

"En la niebla"

Zuzendaria: Sergei Loznitsa



(ANTZOKIAN)

14an: 22.30
15ean: 19.45, 22.30
16an: 20.00
17an: 20.30

"El mensajero"

Zuzendaria: Ric Roman Waugh



BARIXAKUA 14

DANTZA

19.30. Dantzari Eguna, Kezka dantza taldearekin. Untzagan.

IGERIKETA

20.00. Sanjuanetako XXV. Igeriketa txapelketa. Ipurua kiroldegian.

DANTZA

20.00. Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo antzokian.

BOXEOA

22.00. Boxeo Gaua, Gasteiz Sporten eskutik. Astelena frontoian.

ZAPATUA 15

MUSTRA TXAKURRAK

09.00. Mustrako txakurren probintziako txapelketa (izen-ematea 08.00etatik 09.00etara). Arraten.

GELTOKI MARKET

10.30. Geltoki Market bigarren eskuko azoka. Estaziño kalean.

TIROA

11.00. XXII. Tiro Txapelketa, haizezko armekin, Dinbi-Danbarekin. Hezkuntza Esparruan.

ESKOZIA LA BRAVA

12.00. Herri-poteoa, Koskorren hasita.

15.00. Bazkaria, Untzagako karpan.

18.00. Kontzentrazioa Untzagan eta kalejira Ipuruaraino.

KARTEL LEHIAKETA

17.30. "2013ko Sanjuanak Eibarko El Corte Inglés" umeendako kartel lehiaketa. El Corte Inglés-eko terrazan.

SQUASH-A

18.00. Eibarko Hiria squash saria (finalak). Ipurua kiroldegian.

ARKU-TIROA

18.00. Arku-tiroa, Urko Arkularien Klubarekin. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

DOMEKA 16

DUATLOIA

10.00. Eibarko IV. txikien duatloia. Untzagatik hasita.

ATZEGIKOEN TOPAGUNEA

12.00. Atzegiko jaialdia. Debabarreneko XVI. Familien Topagunea. Meza (San Andres elizan).

14.00. Talde argazkia. Untzagan.

14.30. Bazkaria. Unzaga Plaza hotelean.

KONTZERTUA

12.30. Munduko Musika: Isabel Laspiurren ikasleen piano kontzertua. Sarrera: 3 euro. Coliseo antzokian.

GIMNASIA ERRITMIKOA

12.30. Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakusketa. Untzagan.

ERREKORTADOREAK

18.00. Errekortadoren jaialdia, Marques de Sakarekin. Sarrera: umeak 2'5 euro, helduak 6 euro. Zezen plazan.

MARTITZENA 18

KONTZERTUA

19.00. Untzaga Jubilatu Egoitzako kontzertua. Sarrera: Euro bi. Coliseo antzokian.

EGUAZTENA 19

IKASTEN

09.07. Mendi ibilaldia: Orio-Donostia. Trenaren irteera-ordua, Ardantzatik (Estaziñuan, 09.11etan).

HITZALDIA

17.30. "Biodeskodifikazioa osasuna eta gaixotasuna ulertzeko beste era bat", Gorka Arrietaren eskutik. Portalean (ikastaro gelan).

HITZALDIA

19.30. "Artrosia aldakan, belaunetan, eskuetan...? Artroskopian eta kirurgian eman diren aurrerapenak". Policlinica Gipuzkoak antolatuta. Portalean. Sarrera doan.

EGUENA 20

BARRAKAK

Egun osoan. Barraken prezioa 0,70 eurokoa izango da.

hildakoak

- Jose Carballo Carballo. 83 urte. 2013-VI-1.
- Martin Perez Perez. 67 urte. 2013-VI-5.
- Alberto Lauzirika Alberdi. 49 urte. 2013-VI-6.
- Antonio Sanchez Morales. 69 urte. 2013-VI-6.
- Iñaki Galparsoro Garcia. 65 urte. 2013-VI-6.
- Demetria Bereziartua Egia. 91 urte. 2013-VI-9.
- Esther Aldama Perianes. 47 urte. 2013-VI-9.
- Pedro M^o Bergaretxe Agirrebeña. 72 urte. 2013-VI-10.
- Margarita Osa Idigoras. 82 urte. 2013-VI-12.

jaiotakoak

- Maider Caballero Rueda. 2013-VI-1.
- Aner Azkarate Del Arco. 2013-VI-1.
- Ekain Hita Garabal. 2013-VI-2.
- Jules Alberdi Rodriguez. 2013-VI-3.
- Kilian Simon Pareja. 2013-VI-3.
- Edurne Bastida Perez. 2013-VI-3.
- Maitane Mesas Otxoa. 2013-VI-5.
- Jare Unzetabarrenetxea Hernandez. 2013-VI-5.
- Ibai Lopez de Viñaspre David. 2013-VI-6.
- Dario Fernandez Granado. 2013-VI-6.

HOROSKOPOA

ARIES

Jaten duzuna hobeto kontrolatu beharko zenuke: tripako minarekin ibiliko zara hurrengo egunetan. Gauza freskoak jan.

TAURUS

Itxaroten gelditzearekin ez duzu gauza handirik lortuko. Zergatik ez duzu ematen lehen pausoa? Balentria hori behar duzu.

GEMINI

Momentu zoragarria zuretzat. Dena alde izango duzu eta inork ez dizu ahotik irrifarre hori kenduko. Eutsi egoerari!

CANCER

Gauza txarrei bere alde ona ikusten jakingo duzu. Horrek erakusten du zure bizi-poza. Ondo merezitakoa jasoko duzu.

LEO

Ez dakizu zer egin besteen atentzioa lortzeko. Baina ez zara konturatzen nahita saihesten zaituztela? Nekagarria zara.

VIRGO

Ez duzu gauza askorik behar, baina zerbaiten falta sentituko duzu. Konturatu zer falta zaizun eta ekin aurkitzeari.

LIBRA

Irrikitzen egongo zara oporrak hartu eta hemendik alde egiteko. Krisia non dago? Oporretarako gogoa handiagoa da.

SCORPIUS

Bide berriak irekiko zaizkizu, baina ondo aztertu beharko duzu zein hartu. Pentsatu ondo, bide okerretik jo baino lehen.

SAGITTARIUS

Zure gorputza inoiz baino ederrago ikusiko duzu, eta baita besteek ere. Sasoi honek eragin zoragarria izan du zuegan.

CAPRICORNIUS

Gauzak lasaitasunarekin hartzeko aukera izango duzu hemendik aurrera. Atzean lagako dituzu urduritasun/egonezinak.

AQUARIUS

Hemendik aurrera bero handiagoa egingo du, baina hori ez da kirola egiteari lagatzeko nahikoa arrazoi. Osasuna!

PISCIS

Zer nahi duzun argitu beharko zenuke. Bestela, alferrik babilzta, ez baituzu aurkituko bilatzen duzun hori.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

telefono jakingarriak

SOS deiak.....112
 Pegora.....010
 Udaletxea.....943 70 84 00
 Portalea.....943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea 943 70 07 99
 Debegesa.....943 82 01 10
 KIUB.....943 20 38 43
 Epaitegia.....943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
 Gurutze Gorria...943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua.....943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza.....943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa.....902 10 12 10
 Taxiak.....943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkohol.Anon.....629 14 18 74
 Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etarik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etarik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etarik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etarik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etarik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etarik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etarik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etarik 21.40etara ordu erdiro.
EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etarik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etarik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.50 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.
EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.
EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etarik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etarik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etarik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etarik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etarik 20.45etara eta 22.05.
EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etarik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.
DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etarik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etarik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etarik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

erakusketak

- ✓ **Ekainaren 17ra arte**
JAVIER SAGARZAZUREN margolanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Ekainaren 18ra arte**
DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAKOEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Ekainaren 30era arte**
JOSE LUIS IRIGOIENEN "Mendiak eta lainoak" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*
JOAN PALMER-EN "Tristeza" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
PEDRO ARRIOLAREN "Berlin" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- ✓ **Uztailaren 7ra arte**
EINER RODRIGUEZ PONCEREN "Euskal Herriko panoramikak" argazki erakusketa. *Untzagako Jubilatuta Etxean*

lehiaketak

- ✓ **Ekainera arte**
LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA.
Juan San Martin liburutegian.
- ✓ **Ekainaren 19ra arte**
XX. MARMITAKO TXAPELKETA. Ekainaren 25ean, 11.30etatik aurrera Untzagan egitekoa. *Izen-ematea Pegoran.*
- ✓ **Ekainaren 22ra arte**
III. MASKOTA LEHIAKETA. Eguna eta tokia: *Uztailaren 6an, El Corte Inglésko terrazan.* *Izen-ematea eta informazioa: El Corte Inglésko animalien sailean.*

farmaziak

- ✓ **barixakua 14**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **zapatua 15**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 16**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
 GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 17**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 18**
 EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **eguztena 19**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 20**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 21**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

				3	6		
			9	7		2	
5	7			2			
7				9			5
	9	4	7		5	1	8
	1			8			9
				5			9
		8		3	7		
		3	1				

SUDOKUA

8	7	6	3	9	5	1	4	2
9	2	3	1	8	4	6	7	5
1	4	5	7	6	2	9	8	3
4	6	7	5	3	9	2	1	8
2	1	8	4	7	6	3	5	9
5	3	9	8	2	1	7	6	4
3	5	4	9	1	7	8	2	6
7	8	2	6	4	3	5	9	1
6	9	1	2	5	8	4	3	7

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.2. Salgai

- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukalde eta trasteroa. Ilogailua. Guztiz berritua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzarietan eta berritua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
- Arrate-Biden atikoa salgai. Logela bat. 17 m²ko terraza. Guztira 72 m². Berria. 225.000 euro. Tel. 647-952677.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Sorluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
- Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
- Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 666-784526.
- Elgetan pisua alokagai. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela zabala eta balkoia. 70 m². Oso egoera onean. Tel. 618-272943.
- Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.

3.2. Errentan

- Pisua alokagai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzarietan eta berritua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Martxan dagoen janari denda traspasatzen dut Elgetan. Tel. 683-630275.
- Garaje bikoitz itxia salgai Bittor Sarrasketan. 32 m². Tel. 617-336462.

3.2. Errentan

- Garajea itxia alokagai Urkizuko do-reetan. Tel. 616-959625.
- Garajea itxia alokagai Asua-errek-kan. Tel. 616-959625.
- Garaje itxia alokagai Asua-errek-kan. 90 euro hilean. Tel. 686-224524.
- Aisialdirako lokala alokagai, barrarekin prestatuta. Koadrilendako proposa (adin nagusikoak). 80 m². Udal ordenantza berriari egokitu. Tel. 679-425467.
- Ilepaindegi berritua alokagai. Merke. Atenditu ezin delako. Tel. 699-682310.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-457254.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-361252.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-054046.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Goi mailako teknikaria Haur Hezkuntzan. Esperientzia. Tel. 660-522271.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 639-611454.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-765376.
- Neska eskaintzen da lana egiteko. Asteburuak barne. Tel. 682-277198.
- Bi mutil eskaintzen dira altzariak igo eta jaisteko. Furgonetarekin. Tel. 660-213652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka zein gauzez. Tel. 631-385949.
- Gizonezkoa eskaintzen da txofer jarduteko: karnet guztiak. Disponibilitate osoa. Tel. 626-666977.
- Neska eskaintzen da etxeak edo pegoarak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-022174.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-783065.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 699-232823.
- Emakumea eskaintzen da interna zein orduka lan egiteko. Tel. 627-768686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna edo orduka. Tel. 653-075865.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia. Tel. 671-258740.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 697-372374.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziarekin. Tel. 695-719744.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta hoteletan lan egiteko. Tel. 608-474923.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 687-362773.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-068313.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna edo orduka. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 606-050793.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Baita jaiegunetan eta udan ere. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-395829.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-761487 eta 685-836396.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- Erizaintzan titulatu eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko. Tel. 680-952793. Bea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Tel. 688-802701.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 647-031356.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 625-895460.

- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-866535.

4.2. Langile bila

- Emakume eibartarra behar da arratsaldez lau ordutan emakume nagusia zaintzeko. Tel. 635-203283.
- Neska euskalduna behar da 4 urteko umea zaintzeko udan. Tel. 658-693882.
- Kamarera behar da jornada osorako Eibarko erdialdeko kafetegi batean. Bidali curriculum: tre@euskalnet.net.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Enpresa Zientzietan diplomatuak Ingeles, Matematikak eta Euskara klaseak ematen ditu. Mintzapraktika klaseak, baita ikasturtea gainditzeko ere. Tel. 662-110395.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Irakurtzeko liburuak eta entziklopedia salgai. Tel. 688-686639.
- Narruzko sofa-oheta beltza salgai. 3 plazakoa. Erosoa eta merkea. 280 euro. Tel. 687-326230.
- Bigarren eskuko bizikleta salgai. Trek 750 Multitrek. Urteetan erabili gabe. 50 euro. Tel. 679-326038.
- Seme nagusiarentzat bugaboo sillon jartzen den patinetea erosiko nuke. Tel. 647-034201.
- Fitness bizikleta estatikoa salgai. Prezio eta egoera onean. Tel. 658-756462.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Umearen betaurrekoak galdu ditut Aldatze eta San Agustin arteko bidean. Quicksilver markakoak. Urdinak, kolore bereko fundaren barruan. Tel. 629-526767.



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLIKLINICA GIPUZKOA

**20 URTETIK
GORAKOEN
%31K DAUKA
ARTROSIAREN
SINTOMAREN BAT**

Telefona: **943 00 28 00**
www.policlinicagipuzkoa.com



FRANCISCO JOSE GONZALEZ BOSCH, JESUS AZCARATE, JOSU ARRIETA eta IGNACIO CARRILLO traumatologoek **“MOKOR-, BELAUN-, ESKU-ARTROSIA... AURRERAPENAK ARTROSKOPIAN ETA KIRURGIAN”** izeneko hitzaldia emango dute, ekainaren 19an, asteazkena, Poliklinika Gipuzkoaren Osasun Ikasgela zikloaren barruan. Hitzaldia arratsaldeko 19.30etan izango da Portalea kultur etxean.

Artrosia gizartean oso zabaldurik dagoen endekatze-prozesua da. 30 urtetik aurrera hezurren kartilagoen endekatze-prozesua hasten da, eta endekatze horren arabera artrosi handiagoa edo txikiagoa izango dugu. 20 urtetik aurrera sintomak agertzen hasten dira, baina urteak aurrera joan ahala, narriadura-graduaren arabera esan dezakegu patologia den edo ez. Hala ere, 20 urtetik gorako %31k dauka sintomaren bat. Datu hori askoz ere altuagoa da 60 urtetik gorako arteen eta 70-80 urtetik gora ia populazio guztiak dauka artrosia artikulazioren batean.

Sexuari dagokionez, orokorrean artrosia berdin ematen da gizonezko zein emakumezkoen artean; emakumeek belaun eta eskuetan jasaten duten gehienbat, eta gizonek, berriz, mozkorrean.

Osasun Ikasgelan Traumatologia Zerbitzuko espezialistek artrosiaren arrazoi nagusiak azalduko dituzte. *“Zahartzearen kontra ezin dugu ezer egin, baina zahartzeari aurre egiten lagunduko diguten hainbat faktore daude -dio Josu Arrieta traumatologoak-. Artrosiaren prebentzio-*

an ezinbestekoa da, alde batetik, neurrizko ariketa fisikoa egitea, gainkarga mekanikorik gabe, eta bestetik elikadura egokiak jatea, gehiegizko pisurik ez izateko”.

Behin artrosia badugu, gaitzaren eboluzioa moteltzeko neurri farmakologikoak daude: kartilagoa babesteko medikamentuak; helburu bereko hazkuntza plasmatikoko faktoreak eta gaixotasunaren sintomak murrizteko antiinflamatorioak.

Jesus R. Azcarate traumatologoak belaun-artrosiari buruz hitz egingo du. *“Kasurik gehienetan soluziorik onena belaun-protesia bada ere, oso aurreratuak ez dauden kasuetarako, ohiko tratamendu farmakologikoez gain, azido hialuroniko- eta plaketak hazteko faktoreak dituzten plasma-infiltrazioak ere egin daitezke, sintomak arintzeko”*, dio espezialistak.

Hitzaldian artroskopian eta inbasio txiki-kirurgian emandako aurrerapenen berri ere emango da; horien bitartez, traumatologiako ebakuntzak arinagoak izaten dira eta ospitalizazioa motzagoa, eta orokorrean, errazagoa.

Artroskopian eta inbasio txiki-kirurgian emandako aurrerapenei esker, ebakuntzak arinagoak dira eta ospitalizazioa motzagoa

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA



“ARTROSIA ALDAKAN, BELAUNETAN, ESKUETAN...? ARTROSKOPIAN ETA KIRURGIAN EMAN DIREN AURRERAPENAK”



DATA Ekainaren 19an **ORDUA** 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea **sartera DOAN**



POLICLINICA GIPUZKOA

www.policlinicagipuzkoa.com

ZEZENBIDE AUTOESKOLA




AUTO ESCUELA
CURSOS INTENSIVOS

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

Autorako Teorikoa 17 urterekin

INFORMA ZAITEZ!

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



EROSI ETA IRABAZI
MERKATU PLAZAN

5.000€

SARIETAN

ARRAINDEGIA
FRUTA-DENDA
ARDO-DENDA
IZOZTUAK
HARATEGIA
OZPINETAKOAK
DASTALEKUA
EURITAKO-DENDA

DIRULAGUNTZAILEA

EIBARKO UDALA

EROSKETA-TXARTELA **50 €**
EROSKETA-TXARTELA **25 €**
EROSKETA-TXARTELA **10 €**

EKAINAREN 17TIK STOCK-A AMAITU ARTE